

## Eguzkia baino ahaltzuagoa

Narratzailea: Arratsalde on, denoi!!! Hementxe gatoz aurten ere zuei antzerki polit bat eskaintzeko asmoz!  
Pentsatu duzue noizbait gure mundu honetan ahaltzuena nor den? Ahalmen handiena nork duen?  
Ikusi eta entzun adi-adi gure antzerkia Munduko ahaltzuena nor den ezagutuko baituzue gaur!!!.

### EGUZKIA BAINO AHALTSUAGOA

Narratzailea: Bazen behin, batere konforme bizi ez zen Sagutxoa. Beti ari zen kexatzen.

Sagutxoa: Zergatik ote naiz horren itsusia?  
*(bere buruari begiratu)*  
Zergatik eduki behar ote ditut ile gris hau eta buztan luze hau?  
*(bere gorputzeko ilea eta buztana ukituz)*  
Eta zergatik egon behar ote dut beti zulo honetan sartuta?  
*(zuloa seinalatuz)*  
*(Negarrez)* Bai zoritxarrekoa ni!!!

Narratzailea: Negarrez sumatu zuenean, sagu maitagarria aitzinera agertu zitzaion.

Sagu maitagarria: Zer gertatzen zaizu?

Sagutxoa: Arrunt nazkatuta nagoela sagua izatearekin!

Sagu maitagarria: Eta zer izan nahi zenuke, bada?  
Tximeleta, beharbada?

Sagutxoa: Mmmmm tximeleta! *(pentsakor)* Alde batetik bai, baina bertzetik, ez. Bai, hegal dotoreez hegan egiten ahalko baitut. Eta ez, lehentxeago edo beranduxeago, kutxa batean jarriko nautelakoz; bihotza buru-orratz batez zulaturik.

Sagu maitagarria: Orduan, erbia izan nahi zenuke?

- Sagutxoa: Mmmmm erbia! (*pentsakor*) Alde batetik bai, baina bertzetik, ez. Bai, nire hanka sendoez laster egiten ahalko dudalako, beti zulo honetan sartuta egon gabe!!. Eta ez, lehentxeago edo beranduxeago ehiztariren batek lapikoan sartuko nauelako.
- Sagu maitagarria: Azeria izan nahi zenuke, agian?
- Sagutxoa: Mmmmm azeria! (*pentsakor*) Alde batetik bai, baina bertzetik, ez. Bai, harat eta honat ibiltzen ahalko naizelako animalia guztien lepotik irri eginez. Eta ez, lehentxeago edo beranduxeago nire larruarekin beroki bat eginen dutelakoz.
- Sagu maitagarria: Zer izan nahi zenuke, orduan?
- Sagutxoa: Mutila, mutiko bat izan nahi nuke!!!
- Sagu maitagarria: Nola erran duzu???
- Sagutxoa: Bai, begi berdedun mutil dotore bat izatea gustatuko litzaidake.
- Sagu maitagarria: Arraioa!!! Ez nuen horrelako erantzunik espero!! Ez dakit, ba, nire magiak horren ahaltsua ote den!! Baina, tira, saiatuko naiz zure desioa betetzen!!  
(*makilatxo magikoa ateratzen du*)  
Itzuli miruli  
Makiltxo miragarri  
Zure magia bidez  
Sagutxo hau mutil bihurtu dadila!!
- (*Jira ta bueltaka bionboaren gibleko alde batetik sartzen da eta bertze aldetik mutila ateratzen da*)
- Narratzailea: Eta erran eta egin. Sagutxoa, begien itxi-ireki batean, mutil eder bihurtu zen.
- Mutila: (*bere burua begiratu, ukituz*)  
Eskerrik asko, sagu maitagarria.  
Mutil dotore ederra bihurtu nauzu!!
- Sagu maitagarria: Eta zer eginen duzu orain?
- Mutila: Ba, mutila guztiek egiten duguna, neska lagun bat bilatu!. Baina ez nolanhiko laguna, "AHALTSUENA" bilatu nahi baitut.
- Sagu maitagarria: Ahh! Zuk jakinen duzu zer egiten duzun, baina gero ez etorri penekin niregana.

*(Mutila eta sagu maitagarria joaten dira)*

- Narratzailea: Ibili eta ibili, azkenean, gure mutila herri batera ailegatu zen. Berehala antzemanen duzue zein herri zen.  
Herri hartan Aizkolegi jauregian erregea bizi zen.  
Gure mutila beregana joan zen zuzen-zuzenean!
- Mutila: Egun on, Errege jauna!!
- Erregea: Egun on, mutil. Zer nahi duzu?
- Mutila: Galdera bat egin nahi dizut, Errege jauna. Zu al zara ahaltsuena?
- Erregea: Bai zera!! Horixe nahiko nuke nik. Munduko ahaltsuena izan nahiko nuke, baina ez da horrela, bada norbait ni baino ahaltsuagoa.
- Mutila: Nor da ba, errege jauna, zu baino ahaltsuagoa?
- Erregea: Eguzkia. Eguzkia ni baino ahaltsuagoa da.
- Mutila: Berarengana joanen naiz orduan. Eta non topatuko dut nik eguzkia?
- Erregea: Ba, bihar goizean Azkura joaten bazara, hantxe aurkituko duzu eguzkia.
- Mutila: Zuk erran bezala egingen dut orduan.

*(Bionboaren alde batetik joan eta bertzetik ateratzen da. Eguzkia ere bai)*

- Narratzailea: Erregek erran bezala, biharamunean aski goiz zegoen gure mutila Azkurako puntan.
- Mutila: Erraidazu eguzkia, zu al zara ahaltsuena?
- Eguzkia: Eskerrik asko nigan pentsatzeagatik, baina ez, ez, ez!!!  
Ni ez naiz ahaltsuena, bada norbait ni baino ahaltsuagoa.
- Mutila: Nor da ba, eguzkia baino ahaltsuagoa?
- Eguzkia: Hodeia. Estaltzen nauen hodeia ni baino ahaltsuagoa da! Nire aitzinean jarri eta traba egiten dit. Ez dit nire izpi goxo-beroak pasatzen uzten.
- Mutila: Eta non aurkituko dut nik hodeia?
- Eguzkia: Zoaz Atxuri mendi tontorrera eta hango arrokatik errax aski mintzatuko zara hodeiarekin!
- Mutila: Zuk erran bezala egingen dut orduan ba.*(joaten da)*

Narratzailea: Horrela, bada, gure mutilak Atxuri mendia igain zuen, hodeiarekin mintzatzeko.

*(Mutila eta hodeia ateratzen dira)*

Mutila: Egun on, hodeia, erraidazu mesedez, zu al zara ahaltzuena?

Hodeia: Ahaltzuena, ahaltzuena!! Zerutar eta lurtar guztien ametsa da hori!! Ez, ez. Bada norbait ni baino ahaltzuagoa.

Mutila: Nor da ba hodeia baino ahaltzuagoa?

Hodeia: Haizea. Alde batera eta bertzera narabilen haizea ni baino ahaltzuagoa da. Batzuetan ero-ero ibiltzen nau hego haize horrek; bertze batzuetan izoztu nahi nau Ipar haizeak. Batzuek eta bertzeek nahi duten modura erabiltzen naute.

Mutila: Orduan ba, berarengana joko dut. *(joaten da)*

Narratzailea: Joan zen, bada, berriro ere gure mutila Mendi Xorrotxera haizearen bila.

*(Mutila eta haizea ateratzen dira)*

Mutila: Kaixo, haizea, eta arren, erraidazu, zu al zara ahaltzuena?

Haizea: Batzuetan halaxe uste izaten dut nik, baina ez, ez, ez!! Bada norbait ni baino ahaltzuagoa.

Mutila: Nor da ba haizea baino ahaltzuagoa?

Haizea: Pareta. Geldiarazten nauen pareta, ni baino ahaltzuagoa da. Nahiz eta nire indar guztiekin putz eta putz egin, inolaz ere ezin ditut pareta sendo horiek mugitu.

Mutila: Eta non aurkituko ote dut nik pareta sendo horietako bat?

Haizea: Lasai, mutil, Andutzeta karrikatik beheiti joaten bazara, Gaztelu zahar bat aurkituko duzu eta hantxe izango dituzu pareta sendoak!!

Mutila: Orduan ba, zuk erran bezala egingen dut. *(joaten da)*

*(Mutila eta pareta ateratzen dira)*

Mutila: Erraidazu, Pareta, zu al zara ahaltzuena?

Pareta: Sendoa eta azkarra banaiz, baina ez ahaltzuena, ez, ez!! Bada norbait ni baino ahaltzuagoa.

Mutila: Nor da ba pareta baino ahaltzuagoa?

Pareta: Sagua. Ni zulatzen nauen sagua, ni baino ahaltzuagoa da!!  
Egunero, bere hotz karraskariekin ni zulatzen aritzen da eta pixkanaka-pixkanaka ni desegiten nau!!  
Sagua, ni baino ahaltzuagoa da!!

Mutila: Ahhh, bai?? (oihukatzen du)  
Orduan nik lehen bezalako izan nahi dut, hasieran bezalako sagua izan nahi dut; eta Sagutxa nire neska-lagunarekin bizi nahi dut!! Banoa bere bilaaa!!!

Narratzailea: Eta, jakina! berehalaxe, gure mutilak bere lehengo itxura hartu zuen, berriro ere, lehengo sagu bihurtu zen.

*(Bi saguak ateratzen dira: bata hasierako sagutxo eta bertzea sagu maitagarriarena egin duena da baina sagu normalez jantzia).*

Sagutxo: Sagutxa, goazen nire zuloan gordetzera, han gasna pixka bat janez gozatuko dugu!

Sagu maitagarria: Goazen bada!

Narratzailea: Bi saguak elkarrekin poz-pozik bizi izan ziren!!!  
Aaaahhh!! Eta orain badakizue sagua dela ahaltzuena.  
Pareta, haizea, hodeia, eguzkia eta Erregea bera ere baino ahaltzuagoa!

*(Erreberentzia, denak atera eta erreberentzia egin)*